

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 65/2020 Erabakia, otsailaren 11koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko herritarrei AP-1 eta AP-68 autobideetan diruz laguntzekoak diren tarteetan ordaindu duten bidesariengatik dirulaguntzak emateko 2020ko deialdia eta Arabako Bideak SAren (Arabat) aldeko beharrezko esleipenak

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 317/2018 Erabakiaren bitartez, onespena eman zitzaien AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte diruz lagungarrietan Arabako Lurralde Historikoko herritarrek ordaindutako bidesariengatik haiei dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarriei.

Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 318/2018 Erabakiak onetsi zuen Arabako Bideak SAri (Arabat) esleitzea AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte diruz lagungarrietan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik jasoko dituzten dirulaguntzak kudeatzeko eta bideratzeko ardura, entitate laguntzaile gisa.

Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzak igorritako proposamena ikusi da, zeinak proposatzen baitu onestea AP-1 eta AP-68 autobideetako tarte diruz lagungarrietan Arabako Lurralde Historikoko herritarrek ordaindutako bidesariengatik haiei dirulaguntzak emateko 2020ko deialdia, eta onestea, halaber, Arabat Arabako Bideak SAren aldeko esleipenak, ordaindu ahal izateko AP-68ko 400.000 euroko dirulaguntza eta AP-1eko 850.000,00 euroko dirulaguntza.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak txostena egin du, eta horretarako nahikoa aurrekontu kreditu dagoela ziurtatu du.

Hartara, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea AP-68 eta AP-1 autobideetako tarte diruz lagungarrietan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek ordaintzen dituzten bidesariengatik jasoko dituzten dirulaguntzen 2020rako deialdi publikoari.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontutik 400.000,00 euro esleitzea 50.2.01 54.01 480.00.01 "AP-68ko bidesari soziala" aurrekontu aplikazioaren kontura (xedapen erreferentzia: 20.1.20.105-243/000) Arabako Bideak SA (Arabat) sozietatearen alde, onetsitako agindua betetzeko, hau da, AP-68 autobideko tarte diruz lagungarrietan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek 2020an ordaindutako bidesariengatik haiei dirulaguntzak ordaintzeko. Diru kopuru hori handitu egin ahalko da, gehienez ere 675.000,00 euro arte (gehienez ere handitu daitekeena), Arabako Foru Aldundiaren aurrekontutik zer erabili daitekeen, baina lehenengo Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak txostena egin behar du eta Mugikortasun eta Garraio zuzendariak oniritzia eman behar du.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontutik 850.000,00 euro esleitzea 50201.5401.4800002 "Tarifa laua AP-1" aurrekontu aplikazioaren kontura (xedapen erreferentzia: 20.1.20.105-244/000) Arabako Bideak SA (Arabat) sozietatearen alde, onetsitako agindua betetzeko, hau da, AP-1 autobideko tarte diruz lagungarrietan Arabako Lurralde Historikoan bizi diren erabiltzaileek 2020an ordaindutako bidesariengatik haiei dirulaguntzak ordaintzeko. Diru kopuru hori handitu egin ahalko da, gehienez ere 1.400.000,00 euro arte (gehienez ere handitu daitekeena), Arabako Foru Aldundiaren aurrekontutik zer erabili daitekeen, baina lehenengo Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak txostena egin behar du eta Mugikortasun eta Garraio zuzendariak oniritzia eman behar du.

Laugarrena. Deialdia urte guztian irekita egongo da. Baldin eta proposamenek bigarren eta hirugarren apartatuetan jasoriko gehienezko zenbatekoak gaituzten badituzte, muga horiek arte hainbanatuko dira.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agindua ematea.

Seigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beroren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, argitaratzen den egunaren biharamunetik bi hilabete igaro baino lehen, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatzen duenarekin. Gainera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro baino lehen, eta egokitzen jotzen den beste edozein errekurtsu ere bai.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua

JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ